

# noaua

**Santueneko festak  
ostiralean hasiko dira**

**Jauzi Antzerki Egunak,  
bete-betean**

**Baxurde Krossak  
10 urte beteko ditu  
igandean**




**Gure Esku Dago Usurbil:  
“Katalunia eta erabakitzekeo  
eskubidea babesteko unea da”**



*%100 bertako sagarra*

**ONDO PASA  
SANTU-ENEAKO  
JAIETAN!**

*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*



Santuenea,  
Telf: 943 36 50 31

**S**SAGARDOTEGIA



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

**Gure Elkartea**

Santueneako zaharren egoitza



**BOKADILOAK, RAZIOAK...**

**Ondo pasa  
Santueneako  
jaietan!**



Santuenea Auzoa 11, Usurbil - 686 55 41 45  
(enkarguak hartzen ditugu)



**FINKA ADMINISTRATZAILEA**

**AHOLKULARITZA ZERBITZUA**

**INMOBILIARIA**

**ASEGURUAK**

**943 573 693**

Baxoalde 4 behe, ORIO

## Albistea iruditan

# Errautsen Parkea eraikitzen hasi dira

Hilerriko gune berdearen ondoan, espazio berri bat eraikitzen hasi dira: 'Errautsen Parkea'. Hileta zibilak era irekian egiteko aukera egongo da bertan. Orotara, handitze obrek 120.000 euroko aurrekontua izango dute eta aurten bertan amaituta izango direla jakinarazi dute udal iturriek.

"Hilerrri berriaren handitzeak zer ikusi zuzena du hilerrri zaharraren itxiera prozesuarekin. Batez ere, familiartekoei eskatzen ez dituzten usurbildarren azken hilobia izango delako. Gorputz horiek Udalaren gain geldituko dira eta erraustu ondoren parke berrian utziko dira". Hilerrri zaharreko gorpuzkinak beraz, Errautsen Parkera eramango dira.



'Errautsen Parkea' izeneko gunea hilerrri berrian kokatuko da. Lanak bi hilabetez luzatuko dira.

## Laburrean

### 1955. urteko kintoak, Errioxara

1955ean jaiotako eguna urriaren 21ean izango da. "Errioxara bisita eginez egunpasa egingo dugu". Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da: Maribi Arrospide 675 006 445 Patxi Arruti 615 760 458

### KzGunea, irailean arratsalde zabalik

- Irailak 18-19, 16:00-18:00: "Wikipedia. Elkarlaneko entziklopedia digitala".
- Irailak 18-19, 18:00-20:00: "Erosketa seguruak Interneten".
- Informazio gehiago: 943 023 684 tutor.usurbil@kzguna.net

### Ikimilikiliklik erakusketa Irunen ikusgai

Joxan Artzeren inguruko erakusketa Oiasso museoan dago ikusgai. Azaroaren 1era arte egongo da bertan. Irungo Eskoleta kalea 1 helbidean aurkitzen da museoa. Harremanetarako: 943 63 93 53. info-oiassomuseo@irun.org

# noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaqua.eus // www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Aritz Gorriti

## Joan dira

**E**mozio handia eragiten du Katalunian bizitzaren ari direnak. Zoriontzekoa benetan jorratzen ari diren bidea. Zalantza jarri ezinezkoa da, hitza hartu eta haien etorkizuna libreki eta aurpegian irribarre handi bat marraztua dutela erabakitzeke duten desioa. Distantziatik inbidiaz bizi dugu. Ikuspuntu anitzetatik begiratuta zer ikasia badugu gainera, baina oso modu berezian, inoiz existitu ez den batasunari ezinean eusten segitzen duen estatu espainiarrak.

Bi pertsonen arteko harreman luze eta toxikoarekin pareka daiteke, gertatzen ari dena. Bikote horretako

kideetako batek harremana eten nahi du, ez baita ondo tratatua sentitu eta ez da zorionsua alboan duenarekin. Besteak ezetz, ezin duela, “ezkonduak” daudela betiko. Nahiago du orain arte bezala, lepoa sokaz inguratua duen ondokoa lotua izaten segi. Baina ezin du. Kideak soka eteteke gu-raizeak eskuratu ditu.

Espainia eta Kataluniaren artekoa hautsia dago, ez dakit noiztik, baina hautsia dago eta ez du atzera bueltarik. Katalanek espainiar estatuaren ahulgune handienean jo dute bete betean; lehen aipatutako soka hor egon arren oraindik, ofizialki eten gabe, Kataluniako herriak bizkar eman dio estatu espainiarrari. Baimenik

eta barkamenik eskatu gabe.

Une aproposa “bikote” bateko kide bat testuinguru berri horretan murgiltzen doala ikusita, beste kideak, estatuak barrura begiratzeko. Ez du egingo noski, baina terapia moduko bat egitea ondo etorriko litzaioke, desberdin sentitu eta aldarrikatzen duenaren hitza bahitu eta zapaltzeko duen joera obsesiboa tratatzeko. Toxikotasun horretatik irtetzen bada, ekintza simple bat egin zezakeen katalanen aurka jartzen ari den makinaria zapaltzaile guztia alboratuta; bizitza zurekin partekatu nahi ez duena zurera lotu beharrean, joaten uztea.

Orain arte ikusi ez dudana zerbait bada, guztiz hunkitu

nauena. Espainiar estatu betiko errezeta eta legaltasun inposatzaile zein debekatzailearen gaintetik, katalanek dute haien etorkizuna erabakitzeke eskubidea. Argi dute eta gauzatzen ari dira. Badoaz euren errepublika propioa eraikitzen; katalanek Kataluniatik katalanentzat, eta txalotu beharrekoa baita, katalanez. Gertatzen dena gertatzen dela. Itzela, herri katalanaren heldutasun maila. Eta agerikoa, oso agerikoa, estatu espainiarraren gabezi demokratiko larriak. Denak, salbuespenik gabe, kareta kentzen ari dira. Nor den nor ikusiko dugu epe laburrean. Baita Euskal Herriaren ere.

Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

## Ikasgelak, berriro zabalik

**I**kasleentzat ere akabo oporrak. Irailaren 7an hasi zuten ikasturtea Udarregi Ikastolan, Aginaga eta Zubietako eskoletan eta Lanbide Eskolan. Egunerokotasuna itzuli da baita ikastetxeetara ere.

### Greba, hezkuntza publikoan

Murritzeten aplikazioa eten, LOMCE eta Heziberri bertan behera utzi, hezkuntzara inbertsio handiagora bideratu eta langileen lan baldintzak hobetzea eskatzeko hainbat lanuzte egin zituzten unibertsitez kanpoko hezkuntza publikoan udaberri partean. Eusko Jaurlaritzak “egoera larri honi buelta emateko inolako neurri



Irailaren 7an hasi zuten ikasturtea Udarregi Ikastolan, Aginaga eta Zubietako eskoletan eta Lanbide Eskolan.

zehatzik” proposatu ez duenez, Aginaga eta Zubietako eskoletan eragin dezaketen mobilizazio gehiago deitu dituzte udazken parterako LAB,

ELA eta STEILAS sindikatuek. Hilaren 28an esaterako ekimen bereziak iragarri dituzte ikastetxeetan, itxialdiak eta manifestazioak hiriburuetan urrian,

“borroka asteak” azaroan eta greba eguna abenduaren 12an.

### Eskola Txikiaren Eguna

Ikasturtea hasi berritan, laugarrenez ospatuko dute Aginagan, Eskola Txikiaren Eguna. Irailaren 23rako egun pasatolatuta du bertako guraso elkar-teak.

#### Irailak 23, Aginagan

- 11:00-13:00 Haurrentzat sormen tailerrak, jolasak, jolas erraldoiak, puzgarriak...
- 14:00 Bazkaria (aurretik apuntatu beharko da).
- 16:30 Munduan Berbena ikuskizuna.
- 18:30 Dantzaldia.

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAuk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: irailak 22. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 18.

# Eguneko Arreta Zerbitzua, adinekoentzako eskaintza berria

Mendetasun arriskuan edo mendetasun gradu txikia daukaten herritarrentzako Eguneko Arreta Zerbitzua eskainiko du aurrerantzean Usurbilgo Udalak. Zerbitzu berri honen nondik-norakoak azaltzeko, bilera bat antolatu dute. Irailaren 27an asteazkena, arratsaldeko 18:00etan Artzabalen.

Zerbitzua Artzabalen eskainiko da, eta erabiltzaileek beren gaitasunen araberako ariketa ezberdinak egin ahal izango dituzte. “Gainera, aipatutako pertsonak beren ohiko bizitokian egon ahal izatea ahalbidetu eta beren sozializazioa bermatzen saiatuko da, izan daitezkeen isolamendu egoerak leunduz”, prentsa-ohar bidez jakinarazi dutenez.

## Zaintza zerbitzua

Azken asteetan, 65 urtetik gorako usurbildarren artean inkestak egin du udalak Aztiker



Zerbitzua Artzabalen eskainiko da, eta erabiltzaileek beren gaitasunen araberako ariketak egin ahal izango dituzte. Argazkia, artxibokoa.

## JONE URDANPILETA

**“Adinekoei beren etxe inguruan ahalik eta modu egokienean zaintzea da udaletik daukagun ardura”**

enpresaren laguntzaz. “Beste herrietan eginiko inkestekin alderatuta, Usurbilgo udaleko zerbitzuen balorazio positibo

egin zuten galdetutakoek”, adierazi zuen Aztikerreko ordezkariak. Beste datu nabarmen bat Usurbilgo inguru sozio-afektiboaren indarra dela ondorioztatu daiteke. “Adinekoei beren etxe inguruan ahalik eta modu egokienean zaintzea da udaletik daukagun ardura, eta bide horretatik jarraituko dugu”. Jone Urdanpileta Osasun eta Gizarte zerbitzuetako zinegotziaren hitzak dira azken hauek.

## Ugartondoko etxebizitzaren zozketa: onartuen eta baztertuen zerrenda, Udaletxean ikusgai

Ugartondo eremuan eraikiko diren 46 etxebizitza tasatu eta babes ofizialeko 46 etxebizitza –bere garaje eta trastelekuekin– esleitzeko zozketara aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, alkatetzak 2017ko irailaren 11n emandako dekretuen bidez onartuen eta baztertuen behin behineko zerrendak onartu ditu.

### Udaletzeko iragarki-taulan

Zerrendak erakusketa publikoan jarriko dira Udaletzeko iragarki-taulan irailaren 15etik 28ra (biak barne), “interesatuek aztertu eta, beharrezkoa ikusten badute, ondoen deri-



Zerrendak Udaletzeko iragarki-taulan ipiniko dituzte irailaren 15etik 28ra (biak barne).

tzoten erreklamazioak aurkez ditzaten”.

Segidan, aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta gero, zozketarako onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko da.

## Mundualdiako kartela egiteko deialdia

- Lehiaketa irabazten duenak 200 euroko saria jasoko du.
- Lana irailaren 22a baino lehenago erregistratu behar da Usurbilgo Udaleko erregistroan edo postaz bidali beharko dira. Hauxe helbidea: Usurbilgo Udala / Jose Martin Sagardia Plaza z.g. / 20170 Usurbil.
- Proposamenak postaz bidaltzen direnean, posta-bulegoan bidaltzen deneko data justifikatu beharko da, eta egun berean e-mail bat bidaliko da udalera erregistroa@usurbil.eus helbidera. Xehetasun gehiago: usurbil.eus

## Txertatu Merkatuan, lanik gabe dauden gazteei eskaintako programa

Beterri-Buruntzako udalek Txertatu Merkatuan prestakuntza programaren edizio berri bat iragarri dute. Programa hau Beterri-Buruntzako gazteei eskainia dago eta lan mundurako sarbidea erraztea du xede. Aurten, hauxe izango da eskainiko den formazioa: margoketa industriala eta bizikleten konponketen prestakuntza.

### 18-22 urteko gazteentzat

Langabezian dauden eta eskola lerrotik at dauden 18-22 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute Txertatu Merkatuan programan.

### Irailetik abendura

Irailaren 7an hasi zen eta abenduaren 12ra arte iraungo du. Asteleheneetik ostiralera, arratsalde, egunean 5 orduz. Plaza kopurua: 14. Beterri-Buruntzako udalerriko gazteek lehentasuna izango dute.

### Prestakuntzaren edukiak:

- Gizarte, lan orientazio eta integrazioarako teknikak.
- Bizikleten konponketa eta margoketa industrialeko prestakuntza.
- Prestakuntza asteleheneetik ostiralera izango da egunean 5 orduz arratsaldetan.

### Izen-ematea:

- Tokia: Urigain Etxea. La Salle Etorbidea, 6. 20140 Andoain.
- Orduetgia: 09:00etatik 15:00etara.

### Informazio gehiago:

- 943 30 42 21
- txertatumerkatuan@andoain.eus

# Gure Esku Dago Usurbil: “Gure erabakitzeke

**A**di adi jarraitzen ari dira euskal herritar asko bezala, Katalunian egunotan bizi dutenari. Baina begira egoteaz gain, elkartasuna adierazi eta gure bide propioa jorratzeko urratsak ematen jarraitzeko gonbita luzatzen dute Gure Esku Dago Usurbiletik. Euskaldunon erabakitze eskubidea ere jokoan dagoela gogorarazten digute. Horregatik, urriaren 1eko erreferenduma babesteko larunbatean Bilbon egingo den manifestaziora joatera deitzen digute.

**NOAUA! Nola ari zarete bizitzan Katalunian jorratzen ari diren prozesua?**

**Julen Arteaga:** Emozio handiz, inbidia sano handiz. Katalunian aspalditik irakaspen asko ematen ari zaizkigu euskaldunoi. Asko dugu ikasteko.

**Ana Eizagirre:** Emozioz. Esperientzia oso aberasgarria da. Jorratzen ari diren bidea haiena da eta haientzat. Baina estatu bera partekatzen dugun heinean, guregan ere eragina izango du. Ardura puntu bat badugu ez bakarrik gure prozesuarekiko baizik eta haiekiko ere.

**Agurtzane Solaberrieta:** Historian Kataluniak Euskal Herriari behin baino gehiagotan adierazi izan dion bezala, Euskal



Urriaren 1ean Katalunian egin nahi den erreferenduma babesteko manifestazioa deitu dute. Larunbat honetan, Bilbon. Hara joateko autobus zerbitzua antolatu dute. 15:30ean abiatuko dira, Kiroldegitik.

## GURE ESKU DAGO USURBIL

**“Demokraziarentzat ez dago beste alternatibarik, demokrazia bera ez bada. Gaurkoz ez dago herri oso baten borondatea geratuko duen neurri errepresiborik”**

Herriak une honetan ere Kataluniar bere babesa eta elkartasuna adierazi behar dio. Ezin dugu begira geratu bakarrik.

Han gertatzen dena, onerako zein txarrerako gurean ere eragina izango duelako eta neurri handi batean ere badagoelako euskaldunon erabakitze eskubidea eta gure etorkizuna ere jokoan. Handik baldintza batzuetatik irakaspenak atereaz, gureari begiratu eta aurrera egiteko garaia ere bada.

**Nola ikusten duzue Kataluniako herria?**

**A.S.:** Erakusten ari diren duintasuna eta harrotasuna azpimarratuko nuke, herri bezala ko-

lektibitatean erakusten ari diren duintasuna.

**Zalantzan jarri da urriaren 1eko erreferenduma egin ahal izango ote duten, nahiz katalanek argi duten.**

**A.E.:** Denetarik entzungo dugu, baina jada bi estatuez hitz eginen dute, denek barneratua dute. Katalanek jada sortu dute pitzadura bat estatuan. Galdeketa egin egingo da, baina garrantzitsuagoa da zer determinazio dagoen prozesuan. Pauso hori ez bada beste bat emango da, ez dago atzera bueltarik.

**J.A.:** Katalunian ehuneko handi batek argi du haiek izango direla haien etorkizunaren jabe. Ez daude zain goitik zer esango dieten. Galdeketarena nik uste kanpotik jartzen dela zalantzan. Katalunian iruditzen zait inork ez duela zalantzan jartzen.

**A.S.:** Garrantzitsuena urriaren 1ean parte hartzea da izango da. Seguru nago erreferenduma egingo dela. Hautestontziak egongo dira eta katalanek bozkatuko dute. Demokraziarentzat ez dago beste alternatibarik, demokrazia bera ez bada. Gaurkoz ez dago, herri oso baten borondatea geratuko duen neurri errepresiborik.

**A.E.:** Baiezkoa edo ezezkoa atera, katalanak atera dira irabazten, erreferenduma egitea defendatzen dutelako.

## “Politika ez da politikarien eskuetan utzi beharreko gauza bat”

**NOAUA! Katalanak jorratzen ari diren bide horretatik, zer elementu zaizkizue baliagarriak euskaldunontzat?**

**A.S.:** Katalunia eredia da, badago zer ikasia baina ez du zertan eredu bakarra izan behar. Eskozia hor dugu, Brexita bera ere. Bakoitzak egin behar du bere bidea. Halere, herri mu-

gimenduak eta herritarrek Katalunian jokatu duten papera nabarmenduko nuke eta hauek nola bultzatu dituen ordezkari instituzionalak eta politikoak urratsak ematera. Gaur egun esan daiteke, bide orri bateratu batean daudela herritarrak eta instituzioak.

**J.A.:** Katalunia ikasteko oso ere-

du polita dugu, baina bakoitzak bere bidea jorratu behar du. Irakaspen handiena hori da, politika ez dela politikarien eskuetan utzi beharreko gauza bat. Herritarrak elkartzen bagara mugimendu bezala asko baldintzatu dezakegu politikan. Eta pazientziarena aipatuko nuke. Prozesu luzea

ari dira jorratzen, lehen galdeketa duela 10 urte hasi ziren antolatzen.

**A.E.:** Prozesu gorabeheratsu bat da, amaitu ez dena. Ikusten dudana da, determinazio geroz eta handiagoa dutela. Geroz eta bat-egite handiagoa dago erakundeetako ordezkarien eta herritarren artean.

# eskubidea ere jokoan dago”

**NOAUA! Elkarrekin bidea egitearen garrantzia, Gure Esku Dago** **sarri nabarmendu du** **zuen moduan?**

**Arantzasu Ugarte:** Intsumisioa eta desobediencia zibilaren bidetik jo dute eta hori niretzat oso garrantzitsua da. Gauzak nahi baditugu egin, hori da bidea. Historiari begiratuta, ez da ezer ere egin bi gauza horiek gabe mundu osoan. Azpimarratzekoa da Kataluniako herriak bide horrekin bat egitera behartu dituela politikariak. Guk hemen hori behar dugu, herriak joan behar du aurretik. Herriak nahi duena egin behar dute politikariek, ez alderantziz.

**A.S.:** Gure Esku Dagoen helburua erabakitze eskubidearen aldeko borondateak batu, eta biltzea izan da sorreratik. Horretan ari da. Giza-katetik hasita, erabakitze eskubidea gauzatzeko aukera eman die euskal herritarrei. Guztioi gustatuko litzaiguke emaitzak azkarrago ikustea, baina pazientzia behar da, era berean lo hartu gabe.

**J.A.:** Duela bost urte oso zaila zen orain arte egin den bidea irudikatzea, orduan pazientzia hori behar da. Mario Zubiagak



Gure Esku Dago Usurbilgo kideen esanetan, “azpimarratzekoa da Kataluniako herriak bide horrekin bat egitera behartu dituela politikariak”.

## GURE ESKU DAGO USURBIL

**“Katalunian gertatzen denak hemen eragina du. Gure erabakitze eskubidea ere jokoan dago”**

askotan dio, euskaldunok herri bezala historian egon diren olatu guztietara elkartu izan garela. Olatu honetara batzera merezi dugula euskaldunok. Ez da bihar izango, baina pazientziaz eta lo hartu gabe, aukera historiko batean aurrean gaude.

**Hamaika arrazoi beraz, larunbatean Bilboko manifestaziora joateko.**

**A.S.:** Ezin dugu Kataluniara telebistatik begira geratu. Han gertatzen denak hemen ere eragina du, gure erabakitze eskubidea ere jokoan dago. Horregatik irailaren 16an gure babes, elkartasuna adierazteaz gainera, gu ere jabetu gaitezen hango lurrikararen erreplikak honaino ere iritsiko direla, eta espero dut onerako izatea.

**J.A.:** Elkartasuna adierazteko eta konturatzea han jokatzeko ari den partidak guri ere eragingo digula.

## Elkartasuna, “El Vallenc” astekariari

Guardia Zibilak irailaren 9an Vallsen (Tarragona) “El Vallenc” astekariko egoitza miatu zuen, urriaren 1eko erreferendumaren testuinguruan. Hainbat material kendu zieten; ordenagailu nagusia, dokumentazioa... Hedabideko zuzendaria ere komisaldegian deklaratzera deitu zuten. Egunotan, elkartasun mezu ugari jasotzen ari dira “El Vallenc” hedabideko kideak. Baita Euskal Herritik ere. NOAUA! kide duen TOKIKOM elkarteak honako adierazpena plazaratu du:

**Elkartasuna El Vallenc, Frances Fàbregas eta ACPCrekin**

“TOKIKOM, toki komunikabideen bateraguneak, azken orduotan Guardia Zibilak Kataluniako El Vallenc astekaria eta haren zuzendari eta Associació Catalana de la Premsa Comarcal-eko presidente Frances Fàbregas-en aurka hartutako neurriak direla eta, honako hau adierazten du:

1-Elkartasun osoa adierazten diegula hala El Vallenc, nola haren zuzendari Francesc Fàbregas zein ACPC osoari. Hirurekin

ere lankidetzan aritutakoa da TOKIKOM, eta ezin eskertuzko laguntza jaso du haiengandik. TOKIKOM osatzen dugun lagunok gure samina eta kezka ere adierazi nahi dugu gertakari larri hauen aurrean.

2- Geure egiten dugula ACPCk egin berri duen adierazpen eta eskaria:

1- Begirune handiena informazio eta adierazpen askatasunei.  
2- Erredakzio periodistikoek duten pribatutasun eta sekretu profesionalerako eskubideak errespetatu daitezela.

## Autobus zerbitzua, Bilboko manifestaziora

Urriaren 1eko Kataluniako erreferenduma babesteko manifestazioa deitu du Gure Esku Dago mugimenduak larunbatean, irailak 16 Bilbon (17:30ean Kasillatik). Hara joateko autobus zerbitzua antolatu du Gure Esku Dago Usurbilek. Artzabalen, Aitzagan, Patrin, Santuenea eta Aginagako zahar egoitze-tan eta Zubietako Alamandegian eman daiteke izena, irailaren 14ra arte. Autobus zerbitzua, larunbat arratsaldeko 15:30ean abiatuko da Oiardo Kiroldegitik.

Bilbora abiatu aurretik, 15:25ean Oiardo Kiroldegira hurbildutako herritar guztiekin usurbildarren elkartasun argazkia aterako da.

## Estelada udaletzeko balkoian

Usurbilgo Udalak ere elkartasun osoa adierazi dio Kataluniako herriari: “Usurbilen ere Diadarekin eta katalanen asmoekin bat egiten dugu. Endavant! (Aurrera!)”, zioen Udalak twitter bidez. Estelada zintzilikatu dute udaletzeko balkoian.

3- Hiritar guztien errugabatasun presuntzioa eta, bereziki, Francesc Fàbregasena errespetatu dadila.

4-Seguratasun indarrek eta botere judizialek era proportzionatua eta pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatu joko dezatela.

Gertatutakoa zehatz-mehatz argitzen den bitartean, berriz ere gure elkartasun eta babes osoa adierazi nahi diegu El Vallenc, haren zuzendariari, eta ACPC osoari.

Durango, 2017ko irailaren 9an”

# Masusta zaletuen biltzarrak 10 urte bete ditu

**M**asusta Kofradia sortu zuteneko 10. urtemuga festa ospatu zuen irudiko herritar taldeak irailaren 8an Artzabalen. Horixe dituzue kofradiako kapa jantzita. Zorionak! Masusta osagai nagusi duen afari goxoa dastatu eta ereserkia abesteaz gain, kofradekide berri bat izendatu eta urtebete barrukoa nor izango zen iragarri zuten. Guztia kantu eta lagun giro ederrean. Urtez urte hazten doa masusta zaletuen kofradia. Hala segi dezala!



Masusta osagai nagusi duen afari goxoa dastatu eta ereserkia abesteaz gain, kofradekide berri bat izendatu zuten.

## Propietate on ugari dituen fruitua

Jaki honi gorazarre egiteko bilgunea 2007an eratu zuen lagun talde batek Txirristran. Masustak dituen propietate ederrak aldarrikatzen dituzte urtero, masusta noski protagonista nagusi duen kantu-afari goxo baten bueltan. “Masusta oso fruitu kaskartzat hartu izan da, edo merezimendu

**MASUSTA KOFRADIA**  
**“Jaki honi gorazarre egiteko bilgunea 2007an eratu zuen lagun talde batek Txirristran”**

gabekoa. Baina ikasi duguenez, alderantziz da. Masus-

tak egundoko propietateak ditu; indar garbitzailea du, barruak garbitzeko oso ona, bitamina aldetik C eta A ditu, kaltzioa du, burdina ere bai, indar antioxidatzailea eta ematen zaion erabilpena ere zabala da; mermeladak egiteko, likorea ere egiten da”, nabarmentzen dute Masusta Kofradiatik.

## 1958koak, lagun giro ederrean



Jai eta lagun arte giro ederrean ospatu zuten 1958an jaiotako herritarrek, irailaren 9rako Antxeta jatetxean antolatuta zuten bazkari eguna. Ondoko irudian dituzue, Bordatxo aurreko errotondan atera zuten talde argazkian.

## Yoga, reiki eta tai chi ikastaroak Santuenean

■ Yoga: irailaren 19tik aurrera astearteetan (16:00-17:30/18:30-20:00/20:30-22:00) eta ostegunetan (16:00-17:30/20:30-22:00).

■ Reiki: irailaren 20tik aurrera asteazkenetan, 17:00-20:00 artean.

Izen ematea: 619 791 170, abelinamanso@gmail.com

■ Tai chi ikastaroari buruzko informazioa jasotzeko bilerara. Irailaren 22an, 17:00etan Santuenea 12 behea, udal eraikinean.

## Ahalduntze ikastaro berriak emakumeentzat

■ “Doluak eta galerak, orrialdeak ixten, etapak irekitzen”. Ikastaroa erdaraz, Pepa Bojo psikologoarekin. Urriaren 5etik abenduaren 14ra, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegiaren atzealdeko lokalean. Izen ematea, urriaren 3ra arte: Udaleko Parekidetasun Saila / parekidetasuna@usurbil.eus / 943 377 110.

■ “Zertaz egiten dugu barre emakumeok?”. Saioak: azaroak 7, 14, 21, 28. Ordutegia: 17:30-19:30, Potxoenean. Irakaslea: Beatriz Egizabal. Xehetasun gehiago, aurrerago eskainiko ditu Udalak.

## Einean Guraso Eskolako eskaintza

Irailaren 15ean itxiko dituzte ikastaroetako izen emateak: laboreak (Juani, 609 41 38 83); yoga (Katia, 636 71 15 14 edo kaiztos@yahoo.es/Sebas, 605 72 28 25); pintura (Susana, 609 41 38 83); eskulanak (Susana, 609 41 38 83); masajea (Sebas, 605 72 28 25); sabel dantza/hip hop (Uarda, 637 25 68 51).



# Santueneko jaietako auzo bazkari eta afaritarako txartelak salgai

Irailaren 14ra arteko epea dago auzotarren bilgune izango diren bi otorduetako txartelak erosteko. Salgai dituzte, Santueneko Ibai-Ondo elkartearen, Gure Elkartea jubilatuen tabernan, baita Artzabalen ere. Auzo bazkari eta afarikoak 20 eurotan eskeratu ahalko dira.

## Igandeko menua

Honatx igandean ospatuko den bazkariko menua: paella, txekor saiheskia, postrea, kafea, pattarra eta purua.

## Mus txapelketa

Larunbatean, 16:00etan hasita Santueneko jaien baitan. Izen



Igandean egingo da herri bazkaria.

ematea aurreko ordu erdian bideratuko du antolakuntzak, 15:30-16:00 artean.

Bikoteko prezioa, 20 euro. Kartak jokoan abilenek, sariok irabaziko dituzte:

1.- Bi txapel, bi trofeo, bi pertsonentzat afaria, bi marisko lote, onddo otar bat eta bi botila txanpain.

2.- Bi trofeo, zortzi txuleta, bi gazta eta botila txanpain bat.

3.- Lau txuleta eta bi botila txanpain.

4.- Baserriko bi oilasko eta bi botila txanpain.

## Txupinazoa, ostiral arratsaldean

Irailaren 15ean ostirala, arratsaldeko 17:00ak aldera, jaietako metxa piztuko da. Txosna aurrean hasiko da festa eta ondoren txokolate jana hasiko da. Eta segidan, globo gerra. Ea eguraldiak laguntzen duen...

# Hiru eguneko jai egitaraua

## Irailak 15 ostirala

17:00 Txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada Tragoxka tabernaren eskutik. Ondoren, globo gerra.

18:30 Buruhandiak, Ustekabe txaranga.

19:00 Sardina jana.

21:00 Musikariaren afaria.

23:30 Kontzertuak: Kezka eta Fridays Crew; Joxpa Erromeria.

## Irailak 16 larunbata

10:30 Pintura lehiaketa.

11:00/13:00 Zirku jostaldia.

13:00 Buruhandiak.

14:00 Haur bazkaria (Norberak bere bazkaria ekarri, eta edariak eta postrea bertan banatuko dira).

16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 izen ematea).

16:00 Haurrentzako puzgarriak.

17:30 Txokolatada Zaharren Egoitzaren eskutik.



Aurtengo festetan ere, haurrentzako ekitaldi asko izango dira.

19:00 Buruhandiak.

21:00 Herri Afaria.

00:00 Dj Mikeltxi.

## Irailak 17 igandea

11:00 Toka txapelketa.

12:00 Hamaiketako txosnan.

14:00 Herri bazkaria.

17:00 Gorritiren showa.

Ondoren, buruhandiak.

19:30 Piper dastaketa.

21:00 Festen amaierako traka.

Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.

## Tren zerbitzuak, neguko ordutegian

Astelehenaz geroztik indarrean du Euskotrenek 2018ko uda partera arteko ordutegi berria. Xehetasun gehiago: 944 333 333/euskotren.eus/ Twitter: @euskotrenEJGV. Lurraldeusek hilabete hasieratik du indarrean "negu" parteko ordutegia. Iraila amaieran argitaratuko dugu NOAA!rekin batera garraio zerbitzuen inguruko ordutegi berrien informazioa.

## Kantu Taldekoak martxan

Udarregi Ikastolako ikasturte hasierarekin batera, lanera itzuliak dira Kantu Taldekoak. Asteartero bilduko dira aurrerantzean entsegetarako, 18:30-19:30 artean ikastolako kantu gelan. Uda osteko lehen kantu jira berriz, irailaren 30erako dute iragarria.

# Ander Lipus: “Sutegiren neurriak ez dira handiak eta horri esker publikoa gertuago sentitzen duzu”

Aurreko astean hasi ziren Jauzi! Antzerki Eguna. Ekitaldi gehienak, ordea, asteburu honetan egingo dira. Aspaldiko partez, Ander Lipus aktorea ikusi ahal izango dugu Sutegiko oholza gainean. *Hozkailua* antzezlanaz eta bere ibilbideaz luze zabal hitz egiteko aukera izan dugu.

**NOAUA! Francoren bilobari gutuna antzezlanaren amaitu eta handik gutxira Hozkailua eskaintzen hasi zintzen. Muntaia handi batetik txiki batera igarotzea arraroa egin al zitzaizun?**

**Ander Lipus:** Zorionez, ez. Zorionez aukeratzeko moduan gara. Argi genuen hurrengo obra formatu txikikoa izango zela eta beste itsaso batean mugituko ginela. Beste modu bateko antzezlan bat proposatu nahi genuen, hain juxtu horregatik, obra handiagoekin iristen ez garen tokietara iritsi



Patricia Urrutiak eta Ander Lipusek *Hozkailua* antzezlanaren eskainiko dute ostiral honetan Sutegin. 22:00etan hasiko da funtzioa.

## ANDER LIPUS

**“Usurbilen aritu izan garenean publiko bat hurbildu da eta hori da guretzat inportanteena: publikoa antzerkira hurbiltzea”**

ahal izateko.

**Sutegira, adibidez. Francoren bilobari gutuna-rekin ez beza-**

**la, Hozkailua-rekin Usurbilen arituko zarete.**

A. L. Sutegik gauza bat du ona: gertuko delat. Antzokiaren neurriak ez dira hain handiak eta, horri esker, publikoa gertuago sentitzen duzu. Eta hori da *Hozkailua* antzezlanarekin bilatzen genuena. Francoren muntaia ez zen Sutegin sartuko, eszenografia konplexua zuelako. Katxea ere handiagoa zen. Kasu honetan, posible izango da eta oso gustura

joango gara Usurbilera. Oker ez banago, *Publikoari gorroto* antzezlanarekin izan nintzen azkeneko aldiz Sutegin.

**Zer nolako oroitzapenak ekaritzen dizkizu Sutegik?**

A. L. Garai batean asko ibili nintzen bertan, baina aspaldian ez dut Sutegira itzultzeko aukera handirik izan. Faltan botatzen dut, egia esan. Lehen Topa Jardunaldietan eta orain Jauzi Antzerki Egunean antolatzaile lanetan dabiltzanak antzerki mundukoak dira. Eta horrek bestelako berotasun bat ematen dio gure hitzorduari. Tratua ezberdina da eta, zentzu horretan, oso mihatuak sentitzen gara.

Gainera, Usurbilen aritu izan garenean publiko bat hurbildu izan da eta hori da guretzat inportanteena: publikoa antzerkira hurbiltzea. Oraingoan ere, jendea etortzea eta *Hozkailua* proposamenarekin gozatu ahal izatea espero dugu.

## Jauzi! Antzerki Egunak, bete-betean

### Irailak 14 osteguna

■ 19:00 Kale ekintza musikatua. Ibilbidea: Txiriboga, Txirristra, Antxeta pareko plaza eta Artzabal.

■ Herriko hainbat txokotan pieza desberdinak:

- Daltonak taldeak, “Lapur depresiboak”.

- Muxurbilek, “Gure heroiak” biak usurbildarrak.

- Gorka Zubeldia eta Eñaut Gantxegi transfugek, “Opor politikoak”.

### Irailak 15 ostirala

■ 19:00 Mahai ingurua Sutegiko auditorioan: “Transgresioa, tabua ala desira?”.

Hizlariak: Kattalin Miner, Oier



Argazkian, “Djinji, djinji!” emanaldia. Gorputzen mugimendua baliatuta irailaren 8ko poteo ordua girotu zuten Lasarteko Dantzariak.

Guillan eta Manex Fuchs.

■ 21:00 “Tentexut” zizka mizkak Sutegin.

■ 22:00 “Hozkailua” an-

tezlanaren antzezlanaren auditorioan. Sarrerak: egunean bertan 5 euro (3 euro ikasle eta langabetuentzat).

### Irailak 16 larunbata

■ **Zirku jostaldia** 11:00etan Santueneko frontoian. Haur eta gaztetxoentzako ekintza izango da. Sarrera doan.

■ **“Zatarraren edertasuna”** 18:00etan ikastaroa Sutegin. Aktore eta zuzendaria: Iñaki Ziarrusta. Sarrera: egunean bertan 5 euro (3 euro ikasle eta langabetuentzat).

■ **“Tentexut” zizka mizkak** 21:00etan Sutegin.

■ **“Fakiu” antzezlanaren** 22:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak: egunean bertan 5 euro (3 euro ikasle eta langabetuentzat).

■ Antolatzaileak: Muxurbil eta EHAZE. Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

# “Hozkailua”, adiskidetasunari buruzko antzezlan

**NOAUA! Hausnartzeko ere baliogarriak izango dira Jauzi Antzerki Egunak. Iaz umorea izan zen gai nagusia. Aurten, transgresioa. Hozkailua obrak zenbat du umoretik eta zenbat du transgresiotik?**

**Ander Lipus:** Bere garaian, hiru pertsonaiak (Jimmy, Karlos eta Maite) transgresoreak ziren. Punkiak ziren eta sistematik kanpo bizi ziren. Euren asmoen artean rocka, drogak eta jairik jai ibiltzea zegoen. Halaxe bukatu zuten, oso gazte, Londoneko etxe okupatu batean bizitzen. Horrek badu transgresoretik zerbait.

Obran badaude beste momentu batzuk bere garaian transgresore izan zirenak, eta oraindik hala direnak. Espiritu hori badago. Baina horretaz aparte, beste gai batzuk ukitzen dira. Umore beltzetik ukitu ere. Kontua hartu hozkailuaren barruan aspaldiko lagun baten gorpua dakartela. Hortaz, absurdutik ere badu.

**Adiskidetasunari buruzko antzezlan bat dela esan daiteke?**

**A. L.** Hori da. “Kolega” izateari buruzko hausnarketa egiten da. Karlosek une jakin batean London uztea erabaki zuen, herrira itzuli eta bizitza normal hastea. Bizitza normal hori bidegurutze batean bilakatuko da gero. Emaztearengandik banandu egingo da, ez du hipoteka pagatzeko dirurik, egoerak gainezka egin dio... Eta bapatean, Maite agertuko da, Jimmy hil dena esanez. Laguntza eske ari zaio Maite, eta hor pizten zaio kolega sentimendua Karlosi: “nola ez naiz joango nire lagun izandakoa laguntzera?”. Hor hasten da *road movie* kutsua duen antzezlan.

Hiru pertsonaia hauen bizitzekin eta euren adiskidetasunarekin zer gertatu ote den



“Hozkailuan ‘kolega’ izateari buruzko hausnarketa egiten dugu”, Ander Lipusek aitortu digunez.

**ANDER LIPUS**

**“Kontuan hartu hozkailuaren barruan aspaldiko lagun baten gorpua dakartela. Hortaz, umore beltzetik ez ezik absurdutik ere badu”**

argitzen joango dira ikusleak.

**Errautesak (2010) antzezlanean ere, hildakoek presentzia handia zuten. Baten batek pentsatuko du fihazio modukoa duzue defuntuekin.**

**A. L.** Kar, kar, kar! Antzerkia egiteko garaian, une edo egoera estremoak bilatu behar dituzu. Guk hala uste dugu behintzat.

Heriotza errekkurrentea ote den ez dakit, baina akaso gure buruan dagoen zerbait da, mamu bat, tabu bat... Teatroa egiteko puntako pertsonaiak sortu behar dituzu.

Badira *Errautesak* eta *Hozkailua* antzezlanen arte-

ko kointzidentzia batzuk, baina natural etorri zen. Zerbait ibiltaria egin nahi genuen eta horrela suertatu da. Baina gehiago du kointzidentziatik.

## Elkarlanean

**Unai Iturriaga eta Igor Elortza gidoilari gisa aritu dira zuen azken muntaietan. Teatroa egiteko modu bat sendotzen ari zaretela esan daiteke, ezta?**

**A. L.** Elkarlan horrek zerbait badakar. Gure belaunaldi berekoak dira. Baditugu kezka komun batzuk. Gure herrian kokatzen dira istorioak, komunitate batengana iritsi nahi dugu, euskaraz aritzen gara... Badugu iruditeria komun bat eta publikoak iruditeria hori jasotzen du. Uste dut horrek guztiak nolabaiteko zigilua ematen diola gure arteko elkarlanari.

Harreman estua dugu Unai-ekin eta Igorrekin baina beste idazle batzuekin ere bidea egiteko ahaleginean gabiltza.

## Musikaren presentzia

**Musikak garrantzia handia du zuen antzezlanetan eta Hozkailuan ere hala da. 80. hamarkadako abestiak kantatzen dituzue. Obra hau generazionala dela esango al zenuke?**

**A. L.** Ez dugu horrela sentitzen. Denetariko publikoa etorri da gu ikustera. Gainera, beste gai batzuk ere agertzen dira: aitatasuna, amatasuna, bikote kontuak, sexua... Badaude gauza batzuk ez direnak generazio bakarrari dagozkionak. Adin ezberdineko publikoarentzat egokia dela esango nuke.

Egia da, bestetik, izugarritzko garrantzia ematen diogula musikari. Patricia Urrutiak gitarra jotzen du, nik harmonika, eta bion artean abesti ezagun batzuk kantatzen ditugu obran. Keu Agirretxearen slide guitar bat ere entzuten da. Dena den, Asier Ituarte egin du antzezlan honetako musika eta bere lanak oso ondo girotzen du Manex Fuchs zuzendariak irudikatu duen obra.

# Ziztu bizian, hamargarrenera

**K**lasiko bat da jada. “Irailko lehen bi igandetan Kontxako estropadak izaten dira, eta hirugarren igandean gure krossa”. Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak antolatutakoa. Klasiko bat dugu herriko kirol eskaintzan, 10. ediziora heldu den proba herrikoa. Taldearen sorrera urtemugarekin bat egiten duena gainera. “Urteotako balantzea oso positiboa da”, adierazi diote NOAUA!ri Baxurde Txikitik.

Denboran atzera egin dugu triatloi taldekoen eskutik, abiapuntura, 2008ra. Taldea osatu eta gutxira sortu zen Baxurde Krossa antolatzeko ideia. “Taldea martxan jarrita, herrian zerbait antolatzeko zen helburua eta Krossaren ideia proposatu zen”, oroitu digute triatloi taldeak. Krossak taldearen izena hartu zuen sorreratik. Eta taldeak Usurbilgo armarriko irudia zuen sorburu. “Izena hautatu eta erregistratu beharra zegoen. NOAUA! eskutan, Usurbilgo armarrin baxurde bat ageri zela ikusi genuen”, eta hortxe izenaren jatorria. “Txiki” erantsi behar izan zioten izenari, “baxurde” jada erregistratua omen zegoen eta.

## Oihartzuna herritik kanpo

Nagusiki usurbildarrak, eskualdeko lasterkariak edota lasterkari gipuzkoarrak erakarri dituen arren, Baxurde Krossak Euskal Herriko nahiz atzerriko hainbat kirolariren bisita jaso du urteotan. Triatleta famatuekin batera, lehen edizioetako batean, antolakuntzatik NOAUA!ri adierazi dioten moduan, “infiltratuak” izan zituzten lasterketan. Gerora Runners atletismo munduko aldizkari ezaguneko kirol ekimen honi buruzko artikulua argitaratu eman zuten kazetariak. “Lasterketa asko gustatu zitzaizela esanez deitu ziguten eta haien



Irailaren 17ko Baxurde Krossa lasterketan, 10,75 kilometro eta 5,2 kilometroko ibilbide bana izango da aukeran.

## BAXURDE TXIKI TALDEA

**“Duela urte batzuk, Runners aldizkari ezaguneko Baxurde Krossari buruzko artikulua argitaratu eman zuten”**

aldizkarian aterako zela. Artikuluan aipatzen zuten hazten zihuan lasterketa zela Baxurde Krossa, oso polita, zozketa pila egiten zirela. Bertako txirrindulari ezagunaren, Haimar Zubeldiaren izena ere aipatzen zuten”, oroitzen digute.

## Zozketa apartak

Lasterkari batek baino gehiagok atsegin du krosseko ibilbidea, paraje eder askotatik igarotzen baita krossa. Urteotan hainbat aldaketa izan ditu, batzuetan obrak zirelako egokitu beharrean izan dira zirkuitua. Distantzietan ere izan da berrikuntzarik. 10 kilometroko ibilbide bakarra zuten aukeran hasieran. Gerora sortu zen eskariari erantzunez, 5 kilometrokoa ere antolatzeari ekin zioten. Baita etxeko txi-

kientzako lasterketa laburra ere, haur eta gaztetxoak ere kirol festa honetan murgiltzeko aukera izan zezaten. “Oso ondo pasatzen dute”, nabarmentzen dute Baxurde Txikitik.

## Dendarien ekarpenak

Kross amaierako oparien zozketek, aparteko aipamen bat merezi dute. Sari mordoa banatzen baitu Baxurde Txiki lasterketa amaieran. Beste hainbat tokitan, zozketa aurrez egina egoten da eta lasterkariak helmugara heldu ahala jasotzen dituzte sariak. Usurbildarrek ordea ekitaldi hau gogotik zaindu izan dute edizio guztietan, eta lasterketa festa egunean bihurtu. Beste lekuetan, lasterketa amaitu eta berehala korrikalariek ospa egitea ohikoena izaten den bezala, Usurbilen ez, jai giroak proba ostean segida izaten du oparien zozketarekin. Baxurde Txikitik nabarmendu nahi dute, opari banaketarako ostalari, merkatari eta enpresek egiten duten ekarpena. “Garrantzitsua da haien ekarpena, bestela ezingo genuen kross

hau antolatu”, eskertzen du antolakuntzak.

## Parte hartzeko deia

Ziztu bizian igaro dira aurreko bederatzi edizioak eta konturazterako hamargarrena ate joka dute. “Korrika egiten duenak anima dadila, festa polita izaten da”, diote antolatzailiek igandera begira. Egokia izan liteke baita azaroan ospatuko den Behobia Donostia prestatzen hasteko ere. Izen emateko azken egunak dituzue.

## 10. Baxurde Krossa, izen ematea

- Eguna: irailak 17, igandea.
- Ordua: 10:30.
- Tokia: Usurbilgo frontoia (irteera eta helmuga frontoia).
- Zehaztasunak: 10,75 kilometro eta 5,2 kilometroko ibilbide bana aukeran. 300 lasterkarientzako lekua. Txikientzako krossa ere ospatuko da.
- Izen ematea eta informazio gehiago: [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) edo Oiaro Kiroldegian.
- Antolatzaila: Baxurde Txiki U.T.T.

# Rosa Uribe: “Erreleboa egotea nahi nuke, batez ere nesketan”

Lehen emakumezko eta usurbildar gisa saritua lizan da behin baino gehiagotan Baxurde Krosseko aurreko edizioetan. Hamargarrenerako ere, izena emana du Rosa Uribek. Bere ibilbidean urrats berri bat eman du urteotan; asfaltotik mendira jauzi eginez.

## NOAUA! Sorreratik parte hartu duzu Baxurde Krossean?

**Rosa Uribe:** Lehen urtetik parte hartu dut, haurdun egon nintzenezan izan ezik urtero. Herriko proban eta ez dut parte hartuko? Herriko jendearentzat aitzakia ederra da kirola egiteko. Usurbilentzat markatua dagoen proba bat da jada.

## Aurtengoan ikusiko zaitugu?

**R. U.:** Bai, nahiz markarik egiteko asmorik ez izan. Ez nago sasoi betean. Ziatikarekin nabil aspalditik. Halere, azkeneko mendiko lasterketetan ere ziatikarekin parte hartu izan dut.

## Entrenatzerakoan eragingo dizu ezta?

**R. U.:** Batzuetan ondo noa baina biharamunean... Azkarregi banao eta mina sentituz gero,



“Hemen denek zure izenez animatzen zaituzte eta desberdina da. Ibilbide guztian herriko jendea dago. Berezia da”.

### ROSA URIBE

**“Zirkuitua oso polita da. Ibilbideko zati zailena Bizkarreko aldapa izaten da”**

erritmoa jaitsi eta kito. Minik ez badut topera ibiltzen naiz.

**Lasterkari askok, Baxurde Krosseko zirkuitua balartzen dute positiboen Baxurde Krossetik. Zuk baita?**

**R. U.:** Zirkuitua oso polita da bai; Zubietako buelta, gero he-

rrian jendea animatzen ikustea. Ibilbideko zati zailena Bizkarreko aldapa izaten da.

**Zozketak, jaiaren segida bihurtu dira.**

**R. U.:** Ezagutzen dudan kanpoko jendeak komentatu izan dit. Hor egoten dira lasterketa amaitu eta zozketen zain. Erakartzen dute jendea. Oso ondo dago antolatua.

**Zerk motibatu zaitu urteotan parte hartzen jarraitzea?**

**R. U.:** Herriko lasterketa izateak. Ia herritar gehiago animatzen den parte hartzera, erreleboa

egotea nahi nuke, batez ere nesketan. Batzuk ikusten ditut aurtentzen, korrika egitera animatu nahi nituzke.

**Hasieratik hona emakumeen parte hartzeak zer eboluzio izan du?**

**R. U.:** Neskak animatu dira urteotan, asko 5 kilometroko lasterketan parte hartzera.

**Krossa nolakoa da barrutik?**

**R. U.:** Barrutik emozio handia bizitzen da, lasterkari gehienak usurbildarrak dira. Kanpora lasterketa batera zoazenean animatzen zaituzte baita, baina hemen denek zure izenez animatu eta ezagutzen zaituzte. Desberdina da. Ibilbide guztian herriko jendea dago. Berezia da.

**Mendiko lasterketetan ibili zara.**

**R. U.:** Duela hiru urtetik Andatzker taldekoekin ibiltzen naiz. Igande goizetan geratzen gara mendira korrika joateko. Bizpahiru orduko itzulia egiten dugu. Askotan bakarrik ere joaten naiz. Orain gustukoagoa dut mendia asfaltoa baino. Politak da, desberdina.

## “Baxurde Krossan, Lasarteko lasterketan eta Behobia-Donostian hartzen dut parte”

**NOAUA! Baxurde Krossaren bezalako probak nabarmen ugarritu dira urteotan. Zergatik zure ustez?**

**Rosa Uribe:** 30-40 urtetik gorako jende asko animatu da. Probak egoteak animatu du jendea. Halere lasterkari kopuruan egon den gorakadak behera egingo

duelakoan nago. Jende askoko belaunaldia izan da gurea. Lehendik beste kirol jarduera bat egin zutenetik jende asko pasa da korrika egitera. Denak korrikara igaro dira baina hori ere pasako da.

**Inguruetan, erribera aldean**

**lasterkariaren mugimendua sumatu al duzu azken urteotan?**

**R. U.:** Bai mugimendua hasten da jada, bai Baxurde Krossari, Lasarteko lasterketari eta Behobia-Donostiari begira. Nik normalean hiru lasterketa hauetan parte hartzen dut.

**Zer esan 10. ediziorako?**

**R. U.:** Animatzeko, pixkana hasteko, esaterako behoko industrialdean pare bat buelta emanaz. Baxurde Krossean 5 kilometroko ibilbidea aukeratu, hurrengo urtean 10ekoa... Norbera bere erritmoan beti. Horrela animatzen joango zara.

# Iñaki Geric: “Zer gutxiago, bizi naizen herriko lasterketan parte hartzea baino”

Sorreratik parte hartu du Baxurde Krossean, eta atleta gisa lasterketa herriko honekin batera garatu du bere kirol ibilbidea. Iazko txapelduna dugu Iñaki Geric herritarra. Aurtengorako “listoia” oso altu jarria duela aipatu digu.

## NOAUA! Lehen urtetik edizio guztiak bizi izan dituzu?

**Iñaki Geric.** Denetan aritu naiz. Urteetako batean lasterketa motza egin nuen. Aurtengorako ere izena emana dut.

## Zerk bultzatu zintuen Baxurde Krossean parte hartzera?

**I. G.** Urte hartan (2008) Usurbila bizitzera etorri nintzen. Emaztea hemengoa da. Betidanik izan naiz kirolaria. Futbolean aritua nintzen. Hemen kirola egitea nahi nuen, baina denbora askorik kenduko ez zidan jarduera bat egin nahi nuen, bakarrik egin nezakeena eta lehendik ere gustukoa nuena. Lehen Baxurde Krossaren aurreko udan hasi nintzen lasterketan parte hartzen. Usurbil- en antolatu zutela jakinik, zer



Baxurde Krossak adina denbora darama korrika. “Maila hobetzen joan naiz, iaz irabazi nuen arte. Iazkoa nire atletismoko urte hobereena izan zen”.

### IÑAKI GERICA

**“Ibilbidea erakargarria da. Entrenamenduen %80a egiten dudan lekuan lasterketa bat egitea beti da gustagarria. Oso ondo antolatua dago”**

gutxiago, bizi naizen herriko lasterketan parte hartzea baino.

## Nola oroitzen duzu lehen edizio hura?

**I. G.** Egungoarekin alderatuta,

ibilbide ezberdina zuen. Oso gogorra egin zitzaidan, bereziki azken txanpa, orduan Olarriondo inguruak zeharkatzen zituen.

## Zerk motibatu zaitu gerora urtez urte parte hartzen segitzera?

**I. G.** Oso ondo antolatzen dute. Ibilbidea erakargarria da. Entrenamenduen %80a egiten dudan lekuan lasterketa bat egitea beti da gustagarria. Zonaldea ezagutzen dut, horrek motibatzen nau. Nire gorputzak eusten badio eta lesioek uzten

nauten artean beti parte hartzen segiko dut.

## Ibilbidea aipatu duzu, zer da lasterketatik hobekien baloratzen duzuna? Ezer aldatuko zenuke?

**I. G.** Ia dena du positibotik. Baxurde Krossean lehen ediziotik lasterketa piloan parte hartu izan dut. Kanpoan dagoena ikusita, askoz gehiago baloratzen duzu etxekoa. Baxurde Krossa asko lantzen dute, antolaketa lana ez da erraza. Lasterketa bat antolatzen duen klub batean nabil eta gogorra da babesleak aurkitzea, dirua izatea lasterketa osteko luntx eta orogarritarako... Aurrera begira zerbaite esatekotan, ibilbidea beti bera izatea gustatuko litzaidake. Ni bezala lehiakorrek garenontzat, hartara, aurreko urteetako erreferentzia berak izango ditugu.

## Nola bizi duzu lasterketa barrutik?

**I. G.** Herrian jende asko mugiarazten duela ikusten da, gustagarria eta eskertzekoa da beti publikoarekin lasterketa egitea.

## Erbi lanak egingo ditu Behobia Donostia lasterketan

### NOAUA! Iazkoa irabazita, zein da aurten duzun erronka?

**Iñaki Geric.** Listoia oso goian jarria dut. Aurten ez nago iaz bezain sasoi onean. Hainbeste denbora hor egoteak sakrifizio gehiegi exijitzen duela jabetu naiz. Eta une bat heltzen da, ahalegin horiek ez dituzula egin nahi. Halere hor ibiliko gara, gerra ematen.

### Behobia Donostia prestatzeko baliatzen dute batzuk Baxurde Krossa. Zure kasua al da?

**I. G.** Bai, urtero Behobia Donostia prestatzeko abiapuntu gisa

hartzen dut Baxurde Krossa. Aurtengoan beste modu batean parte hartuko dut ordea Behobia Donostian. Lasterketa honetan “erbi” ofiziala izatea proposatu didate.

### Erbi izateak zertan datza?

**I. G.** Iaz Baxurde Txikiko kide bat ere “erbia” izan zen Behobia Donostian. Denbora bat esleitzen dizu antolakuntzak. Denbora hori idatzia eraman behar duzu banderaxo batean. Helburua, proba denbora horren azpitik amaitu nahi dutenak zuri jarraitzea litzateke. Ni-

retzat entrenamendu modukoa izango da.

### Baduzu bestelako lasterketarik zure kirol agendan?

**I. G.** Beste bi lasterketan izena emana dut. Nire helburua, Behobia Donostia probaren ostean, bi aste beranduago antolatuko den Donostiako Maratoia da. Iazko marka hobetu nahi nuke. Bestalde, Samaniego eta Donibane Lohitzune-Hondarribia maratoi erdietan parte hartuko dut.

### 10. Baxurde Krossa igandean.

### Nola erakarri lasterkari berri hori?

**I. G.** Herrian delako, oso ondo antolatua dagoelako. Zer hobeto herriko lasterketan parte hartzea baino, familia edo lagunak animatzera etor daitezten eta goiz entrenitu bat bizitzeko. Egia da baita, kirol jarduera gogorrenetarikoa izango dela. Halere, konstantea bazara, aldateta positibo asko nabarrituko duzu. Horregatik gertatu da urteotako “booma” eta jende asko animatu da. Onura asko dakartzkiola ikusten du jendeak, oso azkar hobetzen duzula.

# Zubietako energia plana, bigarren fasearen atarian

**E**nergia plan propioa garatzen dabilta Zubietan urte hasieratik. Etorkizunean Zubietako energia berriztagarriak sortzeko dituen aukerak aztertzen dabilta. Zubietarren energia kontsumoa eta beharrak aseptzeko zer baliabide beharko litzuket behatu nahi dute. Azterketa horren lehen fasean diagnostia landu dute, bizilagun eta jarduera ekonomiko gehien biltzen dituen Zubietako Kaxkoan.

Guztira 112 etxebizitza daude eremu honetan eta 8 jarduera. Hauei noski, Donostia zein Usurbilgo Udalek eskaintzen dituzten zerbitzuak batu behar, "argiteria publikoa nagusiki" diagnostia landu dutenen esanetan. Egitasmo hau, Lanbide Eskola, Zubietako Herri Batzarra, eta baita Usurbil zein Donostiako Udalen arteko elkarlanari esker garatzen ari dira.

Emaitzak txosten batean bildu eta ezagutzera eman dituzte. Laburpen moduan ondoko infografia honetan bildu dituzte datu nagusiak. Herriarrei ere helaraziko zaizkie datuok, "lanketa honen berri izan dezaten eta bide batez beraien energia kontsumo-ohituren ezagutza ere plazaratzeko".

## "Fakturazio energetikoaren analisia landu nahi da"

Diagnosi hau etxetz etxehiz jardueretara eginiko bisita teknikoetan bildutako datuekin osatu da, "non fakturazio energetikoaren (gasa, elektrizitatea eta egur kontsumoa) analisia landu da, bai eta etxebizitza sektorearen kasuan instalakuntzen eta ohituren diagnostia ere: argiteria, leihoak



Ekintza plana zehazteko, diagnostia egin behar da lehenik. Txosten batean batu dira diagnostiarene emaitzak.

## EGITASMOAK

**Hainbat ekintza gauzatzea aurreikusita dute. "Eraginkortasunaren inguruko tailerrak, fakturazio eta kontratazio energetikoa lantzeko tailerrak edota inbertsio baxua eskatuko luketen neurriak abian jartzea (LED argiteria adibidez)"**

eta isolamendua, etxetresnak... Bestalde, bai jardueretan eta baita etxebizitzetan gaur egun energia berriztagarrien bitarteko energia sortuntza ere aztertu da, zenbat energia ekoizten den Zubietan ezagutzeko asmoz".

Datu hauek bertakoen subira-

notasuna vs menpekotasun maila adierazteko baliagarriak dira.

## Energia berriztagarrien potentziala aztertzea

Ur kontsumoa eta mugikortasuna, diagnosi horretatik salbetsiak geratu direla ohar-tarazi dute. Hainbat ekintza gauzatzea ere aurreikusita dute. "Eraginkortasunaren inguruko tailerrak, fakturazio eta kontratazio energetikoa lantzeko tailerrak edota inbertsio baxua eskatuko luketen neurriak abian jartzea (LED argiteria adibidez)".

Diagnostia landuta, hurrengo urratsa ematera doaz orain Zubietan; Energia Planaren bigarren faseari ekingo diote. Energia berriztagarriek duten potentziala aztertuko da hurrengo hilabeteotan.



"Datu hauek bertakoen subiranotasuna vs menpekotasun maila adierazteko baliagarriak dira".

## Beka batekin Kabiennen urtebetez aritzeko aukera

■ Bekaren zenbatekoa: gehiengo zenbatekoa 12 hilabetezko egonaldia izanez gero 1.089,00 eurokoa.

■ Onuradunen betebeharrak: Adinez nagusia izatea; Berteri-Buruntza eskualdeko udalerritakoren batean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) erroldatua egotea; Usurbilgo Udalarekiko zerga-betebeharrak beteta edukitzea; Usurbilgo Udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari izatea; Ekonomi Jardueraren gaineko Zergan alta emanda ez egotea edo gehienez ere 2017. urtean alta eman dutenak, eta norberaren kabuz ekonomia jarduera bat gauzatzeko ez aritzea. Garatzen ari diren proiektuak baino ezin-gotz dira aurkeztu, deialdiaren helburua ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea baita.

■ Irailaren 30ean amaituko da bekara aurkezteko epea.

Bekadunak bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango du eta harreman-sare indartsuago batekin ekin ahal izango dio lanari. Berteri-ekinean zerbitzuetik tutorizazio bat emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkie, horrela badagokio.

## Energiari buruzko jardunaldia Lanbide Eskolan

Irailaren 20an Usurbilgo Lanbide Eskolan egingo den jardunaldi honetan, TKNIKA, JEMA Energy, Simon eta Agas21 enpresetako adituek hartuko dute parte. Izena ematea telefonoz egin daiteke: 943 364 600.

# “Ez dugu etsitzeko asmorik”

**K**onpontzeke segitzen duen hondakinen kudeaketaren auzia irudikatu zuten gipuzkoarrek irailaren 10ean Donostiako Kontxa hondartzan, estropaden egun handian.

Hiru mezu argi irudikatu zituzten Errausketaren Aurkako Koordinadorak, Mugimenduak eta Donostia Bizirik-ek deitu, eta eragile sozial, sindikal eta politiko anitzek babesturiko giza-katean: “Errausketarik ez. Osasuna bai. Alternatiba bada-gu”.

Eguraldi goibela tarteko, erdi hutsik zen hondartzari esker are ikusgarriagoa egin dute aurtengoan, urte luzez errepikatu beharrean aurkitu diren mobilizazioa.

2017ko hau berezia izango



Herritar ugari batu zen igandean Kontxako hondartzan, Errausketaren Aurkako Koordinadorak, Mugimenduak eta Donostia Bizirik-ek deituta.

zela iragarria zuten antolatzaileek, jada erraustegia eraikitzen hasiak baitira. Halere argi adierazi dute; “ez dugu etsitzeko asmorik, hiri hondakinen errausketaren aurka jarraituko dugu”. Irudi gehiago, noaia.eus atarian.

## Bigarren faseko lanak

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko (GHK) administrazio kontseiluak uztailea amaieran onarturiko erraustegiko lanen bigarren faseko aurreproiektua eta bideragarritasun-plana berretsi zituen asan-

bladak irailaren 5ean.

Erabakion berri irailaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zuten eta biharamunetik, irailaren 8az geroztik 30 egunez jendaurrean ikusgai jarriko du GHK-k erabakion informazioa, interesdunek alegazioak aurkez ditzaten, erakundeak Hernanin (Ibaiondo poligonoan 27-3) duen egoitzako erregistroan. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30 artean. Bigarren fase honen baitan, biometanizazio planta eta zepak tratatzeko beste azpiegitura bat eraiki asmo dituzte Zubieta gainean. Lehen faseko lanekin batera, azpiegitura guztiok 2019. urte erdialderako martxan izatea nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Aldizkariko **"Gazi, gozo, geza"** atala  
noaia.eus web orrian

Alokairua, salmenta, etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukeak...

ZURE OHARRA BIDALI,  
EDO BILA ZABILTZAN HORI  
ERRAZ AURKITU!

**Merkatu txikia**

www.noaia.eus

**HHI-EPA USURBIL  
HELDUEN ESKOLA**

**2017-18 MATRIKULAZIOA IREKITA**

- GRADUKO IKASKETAK (D.B.H)
- INFORMATIKA IKASTAROAK
- EUSKARA (OINARRIZKOA)
- INGELESA MINTZA PRAKTIKA
- FRANTSESA

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalarte.eus



## Nagore Arruti: “Azkenak ez geratzea lorpen handia izan da guretzat”

**D**onostiarrak emakume traineruaren lehen denboraldia izan da hauxe. Bertan aritu da Nagore Arruti usurbildarra. “Maia-tzean trainerua osatu gabe genuen, pentsa. Baina lortu genuen osatzea eta udan zehar hobetzen joan gara etengabe”, telefono bidezko elkarrizketan adierazi digunez.

**NOAUA! Ikusgarria izan zen igandekoa. Barrutik ordea, beste modu batean biziko zenu-ten. Beldurrik pasa al zenuten? Nagore Arruti.** Momentu batzuetan bai. Batez ere poparean, orduantxe ikusten dituzulako olatuak. Bestela, patrioiak bakarrik ikusten ditu, eta berak abisatu ohi digu: “badator olatua eta aguanta!”. Beldur puntu batekin, baina polita izan zen. Itsasoa bare-bare dagoenean, aspergarria ere izan daiteke.

**Horrelako itsasoa aritu al zarete inoiz?**

**N. A.** Entrenatzen tokatu izan zaigu antzeko itsasorik. Lekeitioko estropadan olatu asko egon zen, baina aurreko igandekoarekin zerikusirik ez.

**Fisikoki, bestetan baino askoz gehiago sufritu al zenuten?**

**N. A.** Olatuaren kontra joateko indarra egin behar da baina horrelakoetan mentalki ere ahalegin handia egin behar duzu. Nekagarria egiten da,



Nagore Arrutik bi urte egin zituen Getaria-Zarautz arraun taldean. Azken denboraldia Donostiarra taldean osatu du. Argazkia: Mari Angeles Arruti.

### KONTXAKO BANDERA

**Beldur pixka bat pasa zuela aitortu digu, “baina polita izan zen. Itsasoa bare-bare dagoenean, aspergarria ere izan daiteke”**

olatuen eraginez aurrera egitea gehiago kostatzen zaizulako. Errekan aldiz, ur gutxiago dagoenean, askoz gehiago nekatzten zara fisikoki.

**Zazpigarren amaitu zenuten.**

### Pozik emaitzarekin?

**N. A.** Deustu eta Hernaniren aurretik ibili izan gara Ligan, eta beraien aurretik amaitu nahi genuen. Deusturen aurretik bukatu genuen baina Hernanik oso estropada ona egin zuen. Bestela, oso pozik. Hernani, Deustu eta beste traineru guztiek (Mecosek izan ezik) bloke bat dute. Hiru urteko esperientzia dute talde gehienek. Gure kasuan, hau izan da lehen urtea. Azkenak ez geratzea lorpen handia izan da guretzat.

### Datorren urtean talde berean

**jarraitzeko asmoa du NOAA! Nola laburbilduko zenuke denboraldi osoan egindako lana?**

**Nagore Arruti.** Oso positiboa izan da. Urriaren 29an hasi ginen entrenatzen. Lehen entrenamendu hartatik Kontxako Bandera bitarte, salto handia eman dugu.

**Bilakaera handia izan duzue oso denbora gutxian.**

**N. A.** Sekulakoa izan da. Udan zehar hobetzen joan gara etengabe.

**Maila pertsonalean, zein izan da denboraldiko unerik gozoena? Eta unerik zailena edo gogorra?**

**N. A.** Unerik zailena? Ba maiatzekoa akaso. Oraindik trainerua osatu gabe gurelako. Udako denboraldia hastear zen eta jendea faltan genuen.

Unerik onena? Donostiako Aste Nagusian, Gipuzkoako Ligan jokaturako bandera irabazi genuenean. Oso une polita izan zen hura.

**Ze asmo duzu datorren urterako? Donostiarran jarraituko al duzu?**

**N. A.** Printzipioz, bai. Gauzak ez badira okertzen behintzat, bai. Beste talde batzuk ere badaude, baina azkenean gustura zauden tokian jarraitzea gauza ederra da.

## “Emakumeon partehartzeak gora egin du nabarmen”

**NOAUA! Berdintasunaren bidean, gauzak asko hobetu al dira arraun munduan ala asko al dago egiteko oraindik?**

**Nagore Arruti.** Urtetan, arrauna gizonen kirol bat izan da. Azken urteotan ordea, emakumeon partehartzeak gora egin du nabarmen. Aur-

ten, Gipuzkoako Ligan hamar traineru egon gara. Gorakoa emakumeen presentzia. Alor batzuetan gainera, diskriminazio positiboa egiten da emakumeen arrauna bultzatzeko garaian. Gauzak horrela egiten direnean, maiz arrapaladan egiten dira, baina

pixkanaka sendotzen ari da emakumeen arrauna.

Nahiz eta trainerua osatu eta mantentzea zailagoa den, ari da bere bidea egiten. Talde batzuk desagertu eta beste batzuk sortzen dira baina balantzea positiboa da beti. Gero eta traineru gehiago

daudelako. Hurrengo urtean ere gehiago izatea espero dugu.

Ea mutiletan bezala, emakume guztientzako liga bat osatzen den. Nesketan ere, TKE eta KAE bezalako kategoriak osatuko balira, seinale ona litzateke.

# Helduen Heziketa Eskolako ikasturte berria hastera doa

**E**PA Usurbil HHI eskolak Agerialden du egoitza. Bertan eskaintzen den irakaskuntza ofiziala eta doanekoa da. 2017-2018 ikasturtea hastera da. Oraindik bada izena emateko aukera.

## Oinarrizko prestakuntza

- Helduentzako Bigarren Hezkuntzako Eskola Graduatua.
- Oinarrizko kultur formakuntza.
- Irakurketa, idazketa eta kalkuluan hastapena eta hobekuntza.

## Etorkizuneko programa

- Euskara eta gaztelania.
- Oinarrizko prestakuntza.
- DELE A2 eta CCSE proben prestaketa.

## Programa irekiak

- Frantsesa, ingelesa, euskara, hastapena.
- Oinarrizko informatika.
- Elikadura.
- Tertulia literario dialogikoa.
- Artea.



EPA Usurbil HHIn astelehenean hasiko dira eskolak. Agerialden du egoitza.

## Unibertsitate eta goi zikloetara sarbidea

- Unibertsitatean sartzeko 25 eta 45 urterako hautafroga prestatzea.
- LH Goi Zikloetako prestaketa.

## Osagarrizko jarduerak

- Antzerkia, pilates, yoga, areto dantzak... 'Lan eta lan' ikasle eta ikasle ohien elkar-teak antolatuturik.

## Matrikulazioa

- EPA Usurbil HHI, Agerialde Eskolan.
- Eskola hasiera: Irailak 18 astelehena.
- Matrikula orduak: Goizez, astelehenetik ostirale- ra, 10:00etatik 12:00etara. Arratsalde, astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 19:00etara.
- 943 36 12 73.
- 012734aa@hezkuntza.net

## Urriaren 25ean, Irakurketa Topaketa Sutegin

Ikasturteko lehen irakurketa topaketa urriaren 25erako arratsaldeko 19:00etan iragarri du Sutegi udal liburutegiak. Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" lana komentatuko da, Pako Aristik gidatuko duen hitzorduan. Liburu honen aleak eskuragarri dituzue jada liburutegian. Liburutegia jada ohiko ordutegian zabaltzen dute; astelehenetik ostirale- ra, 10:00-13:00/16:00-19:30 artean. Larunbat goizetan itxita segiko du urrira arte.

## Orbeldi Dantza Taldean izena

### emateko garaia da

Irailaren 14 eta 15ean eman liteke, urriaren 2ko astean abiatuko den ikasturte berri- rako izena 17:00-20:00 artean, Oiardo Kirolegi sar- rerrako dantza gelan. Beste- la, email bat bidali orbeldi. udt@gmail.com helbidera. Prezioa: haurrek 65 euro, helduek 75 euro (ordainke- tak azaroan egin beharko dira). Klaseen ordutegiak:

- Helduen taldeak:
  - Erromeria taldea, asteazke- netan 19:30-21:00 artean.
  - Garaikide taldea, astelehen- etan 19:30-21:00 artean.
  - Tradizionala, izena ematen dutenen artean finkatuko da ordutegia.
- Haurren taldeak: ordute- gia finkatzeko bilera iraila- ren 22an, 18:00etan Udarre- gi Ikastolako erdiko aretoan.

## Garajeetako ustezko lapurrak, atxilotuak

Usurbil, Astigarraga eta Irungo hainbat garajeetan, Añorgako elkarte batean eta Hendaiako furgoneta batean eginiko lapur- reten ustezko egileak atxilotu zituen irailaren 6an Ertzain- tzak; 30 eta 21 urteko bi gizo- nezko.

Biek antza polizia-aurreka-

riak dituzte eta Donostiako epaitegiaren esku utzi zituzten biharamunean.

Ertzaintzak ohar bidez berri eman duenez, abuztuaren 15ean Usurbilgo garaje batzue- tan hiru bizikleta edota abuz- tuaren 13an Astigarragako ga- raje batean BMW turismo bat

lapurtzea egozten diete. Antza ibilgailu hau Donostiatik gida- tzen zihoazela atxilotu zituen Ertzaintzak bi lagunok.

Ertzaintzaren arabera, ibil- gailu hau bera erabili zuten ustezko bi lapurrek Usurbilgo garajeetatik aipatu hiru bizi- kletak osteko.



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITAR TEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

# ARTZABAL

BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

# Ikastaro berriak Oiardo Kiroldegian

Oiardo Kiroldegiak 2017-18 denboraldirako kirol ikastaroen eskaintza iragarri du. Berrikuntzekin aurtun; aquagym, eskalada eta patinaje saioak antolatu asmo dituzte haur eta gaztetxoentzat.

Gainerakoan, zumba, 3. adina, jumpfit, Body Balance, pilates, spinning, mantentze gimnasia, yoga, hipopresibo ikastaroak antolatu dituzte, igeriketako jarduerekin batera; haurrentzako igeriketa ikastaroak, helduentzako hastapen, hobekuntza edo ikastaro gidatuak, triatloiko igeriketa, haurdunen igeriketa...

Informazio gehiago eta izen emateko: Oiardo Kiroldegian edo 943 372 498 telefono zenbakian.



Ikastaro berriekin batera, zumba, 3. adina, jumpfit, Body Balance, pilates, spinning, mantentze gimnasia edota yoga egin daitezke.

## Ate irekiak

Ikastaro hauetan hasi aurretik, proba egin dezakezue. Jarraian hauetan doako saioak antolatu dituzte Oiardo Kiroldegian. "Etorri eta probatu!", luzatu dute gonbita.

■ Irailak 18: 19:00 Zumba /

20:00 Jump eta Aquagym.

■ Irailak 19: 16:00 Hipopresiboak/17:00 BodyBalance/19:00 Yoga.

■ Irailak 20: 18:00 Pilates (hasiberriak).

■ Irailak 21: 19:00 Yoga mindfulness.

■ Irailak 22: 17:45 Jump Gazte.

## Usurbil Cup: 4. jardunaldia

### Irailak 15 ostirala

#### Hararen:

#### Minibenjaminak

16:30 Kaffa-Otar Goxo.  
16:30 Txirinbolo-Icoman.  
16:55 Txirinbolo-Itzira Eraikuntzak.  
16:55 Kaffa-N.I. Ilepaindegia.  
17:20 N.I. Ilepaindegia-Icoman.  
17:20 Itzira Eraikuntzak-Otar Goxo.

#### LH 4,5,6 neskak

16:30 Txiriboga Taberna-Izarrak.  
17:20 Marije-Aitzaga.

18:10 Maiur-Aratz Erretegia.

#### Infantil neskek

17:50 Goieko-Lurda Purtxileria.  
18:40 I.P. Foto-Saizar.  
Atsedernaldia: Goieko.

### Irailak 16 larunbata

#### Hararen:

#### LH 3,4

10:00 Suzko Taldea-Tximista.  
10:50 Futbolari Basatiak-Urtxintxak.  
11:40 Usurbil Sport-

Esnaola Janaridenda.

#### Alebin mutilak

10:00 Mur-Opil Goxo.  
10:50 Aizpurua Okindegia-Artzabal.  
11:40 Lagun Onenak-Bugati Erretegia.

#### Infantil mutilak

12:30 Josue Igeltseritza-Perkuak  
12:30 Errazkin Bizikletak-Laurok

Atsedena: Goieko.

Antolatzailea: Usurbil F.T.

### Futbol Eskolako

#### izen ematea

2007, 2008 eta 2009an jaiotako umeei zuzenduriko deialdia. Usurbil F.T.-k Futbol Eskolan parte hartzeko izen emate egunak finkatu ditu egunotarako: irailaren 22an (ostirala), 17:00-19:00 artean eta irailaren 23an (larunbata) 10:30-12:30 artean, futbol taldekoek Harane zelaian duten bulegoan.

### Enrique Abril

#### Txapelketa

Irailaren 10ean, Zubietak Txost taldearen aurka jokatu behar zuen, baina eguraldi txarraren ondorioz, bertan behera utzi zuten partida. Zehazteke dago neurketa hori noiz jokatuko duten.

#### Irailak 17 igandea

**Oiartzungo plazan, 11:00**  
Txost-Behar Zana.

#### Irailak 17 igandea, 11:30

**Zubietako plazan**  
Zubieta-Luzean.

#### Irailak 24 igandea

**Zubietako plazan, 11:00**  
Behar Zana-Zubieta.

#### Irailak 24 igandea, 11:00

**Oiartzungo plazan**  
Luzean-Txost.

### Pirinioetako

#### asteburu pasarik ez

Posetseko gailurrera txangoa egitekoak zirela iragarri bagenuen ere, bertan behera geratu zen Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteera. Hurrengo irteera urriaren 8rako iragarri dute; Anbotora.



**ETXEBIZITZA****Salgai**

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atzegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokal-

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

**Alokairuan**

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Gizaseme langile edo jubilatu batentzat (nahiago euskalduna). 687 348 223.

Kalezarren etxebizitza alokagai. 3 logela, garajea eta trastelekuarekin 673 547 332.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil

Usurbilen, 3 logeekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 ziliindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671

**Zorionak Izaro!**

Oraingoan 7 urte!

Muxu asko familiaren partez.

**Heriotzak**

Joaquin Tolosa Agarrista

82 urterekin hil zen irailaren 6an Usurbilen



**OHARRA:** 2017ko irailaren 22an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: irailaren 18an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

763 558

Euskal filologoa, Mondragon Unibertsitateko masterrarekin eta oso kurrikulum zabalarekin eskaintzen da, euskarako klaseak emateko maila guztietan. Klase partikularak bai akademietan eta enpresetan. 638 917 714

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportetan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauzez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxee-

tan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldetan lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo hel-

duak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduka lan baten bila: plantxa lanetarako, haur

eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatebete batean harraskan aritzeko eta pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

#### BESTELAKOAK

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburukak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 14** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 15** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 16** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 17** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Astelehena 18** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 19** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 20** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Irailak 14 - irailak 24

**Osteguna 21** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 22** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 23** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 24** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak** [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda iraila

## 15 ostirala

- **Santueneko jaiak.** Ikus 9. orrialdea.
- **Orbeldi Dantza Taldean** izen ematea. 17:00-20:00 kiroldegian duen egoitzan.
- **Kutxa Kultur Festibala** Zubietako hipodromoan.
- **Jauzi! Antzerki Egunak.** Ikus 10-11. or.

## 16 larunbata

- **Xaboiien tailerra** Potxoenean. 9:00-13:00.
- **Santueneko jaiak.** Ikus 9. orrialdea.
- **Kutxa Kultur Festibala** Zubietako hipodromoan.
- **Jauzi! Antzerki Egunak.** Ikus 10-11. or.
- **Bus zerbitzua Gure Esku Dagoren manifestaziora.** 15:30ean Oiardo kiroldegian.

## 17 igandea

- **Baxurde Krossa.** 10:30etik aurrera, Mikel La-boa plazatik abiatuta.
- **Enrique Abril Errebote Txapelketa.** 11:30ean Zubietan.
- **Santueneko jaiak.** Ikus 9. orrialdea.

## Kutxa Kultur Festibala Zubietako hipodromoan

Azken 5 urteotan Igeldon ospatu den Kutxa Kultur Festibala Zubietako hipodromoan dator irailaren 15 eta 16an, kontzertu mordo batekin. Jaialdiaren inguruan, doako ilea apaindegi eta bizartegi zerbitzuak, tonbolak, sagardo dastaketak, azoka... iragarri dituzte hipodromoan.

Informazio gehiago eta sarrerak salgai dituzue donostiakutxakulturfestibala.com atarian. Baita bi egunetarako bonoak ere.



Ostiralean Zea Mays taldea arituko da. Eskaintza oparoa izango da bi egunetan.

Aipatu baita, bi gauetan hipodromoan gerturatzeko garraio zerbitzua indartu dutela.

## Transgresioari buruzko mahai ingurua

Jauzi Antzerki Egunak transgresioa hartu dute hizpide. Aurtengo egitaraua tematika honen bueltan osatu dute. Ostiral arratsaldean, "Transgresioa, tabua ala desira?" mahai ingurua egingo da Sutegin. Kattalin Miner, Oier Gillan eta Manex Fuchs izango dira hizlariak. 19:00etan hasiko da solasaldia. Eta gauez, Ander Lipus eta Patricia Urrutia-ren txanda izango da. "Hozkailua" anezklana eskainiko dute Sutegin.

## Basalandare xaboiien tailerra

Larunbat honetan, basalandare xaboiien ikastaroa Potxoenean. Jone Aldabalde-treku eta Rita Aldabalde-trekuk gidatuko sute saioa. Partaide bakoitzak xaboi bat eta yogurth ontziak eraman behar ditu, molde gisa erabiltzeko.

- Potxoenean, 9:00etatik 13:00era.
- Prezioa: 35 euro, Alkartasunako bazkideek doan.
- Izen ematea: 943 361 114 [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

## Datozenak

### Ate irekiak Kiroldegian

Oiardo Kiroldegiak 2017-18 ikasturterako antolatu dituen ikastaroak probatzeko ate irekiak antolatu dituzte. Irailaren 18tik 22ra, Kiroldegian bertan. Xehetasun gehiago topatuko dituzue 19. orrian idatzi dugun albistexoan.

Informazio gehiago: Oiardo Kiroldegian edo 943 372 498.

### Orbeldi Dantza Taldearen bilera

2017-18 ikasturteko haurren dantza taldeen ordutegia finkatzeko bilera. Irailaren 22an ostirala, 18:00etan Uda-rrégi Ikastolako erdiko aretoan.

### Irailaren 23an, Aginagako Eskola Txikiaren 4. Eguna

Egunean zehar Aginagan:

- 11:00-13:00 Haurrentzat sormen tailerrak, jolasak, jolas erraldoiak, puzgarriak...
- 14:00 Bazkaria (aurretik apuntatu beharko da).
- 16:30 Munduan Berbena ikuskizuna.
- 18:30 Dantzaldia.

Antolatzailea: Aginagako Eskola Txiki-kiko Guraso Elkarte.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

# aek

euskara praktikoa



## % 100 AFEKTIBOA

Eman  
izena



Euskara eskolak



Mintzapraktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio planak



Itzulpenak-Zuzenketak



BIZU!  
aldizkaria

- Diru-laguntzak
- HABEk homologatutako euskaltegiak
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak



korrika [www.muntteri.blogspot.com.es](http://www.muntteri.blogspot.com.es)



607 609 379  
[usurbil@aek.org](mailto:usurbil@aek.org)

## Usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia,  
45 behea  
20170 USURBIL





# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

• ERAIKUNTZAK • OBRAK  
• BERRITZE LANAK

**Josue**  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

Telefonia  
693 059 392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A  
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

**ELORZA**

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

**661 804 688**  
jon.elorza@hotmail.com

SAN ESTEBAN 5, BAXUA



**ARGILAN**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**PLAKODUR**

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



**Antonio**  
**URRUZOLA**  
**ARROZTEGIA**

Tel/Fax: 943 376 415  
Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
*Salsamendi Arregi, Iñaki*  
**ARROZTEGIA**

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL

**J. R. IBARGOEN S.L.**

ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



**antenas**  
**Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Puntapax, 3-3-B 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**  
**ITURGINTZA**  
**GASA-BEROKUNTZA**

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
**BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA**

659 675 283

**Iñaki**  
**Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**JOSEBA**  
**ARANGUREN**  
**ITURGINTZA**

943 83 00 72  
659 88 39 12

**Rafa**  
**iturgindegia**

• ITURGIN LAN OROKORRAK • DUTXAKO HANPARAK  
• KONFINATZAZKO GREHIDAK • KOKUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 beheka • 943 36 80 04



**ANORGA TXIBI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

• komertzial instalazioak  
• beira bikoitza • segurtasun beirak  
• dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**ventamix**

943 59 32 58  
600 80 30 05

**LUMON**  
Banatzaile Ofiziala

info@ventamix.com • Ugaldea polig. 18, USURBIL